



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

2017KO MAIATZAREN 3KO BILERAREN AKTA

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2017.05.03.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.
Zinegotziak:
Mentxu Peña Lizarazu and.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Igor Ugalde Salazar jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Bertaratu ez direnak:

Iñigo Sarrias Zoco jn., lanagatik.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespina.
- 2.-Juan Aguinaga Lazcano jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Katastroko aldaketari buruzko akordioa.
- 4.- Udaleko Hirigintzako Plana egiteko hitzarmenaren onespina.
- 5.-Nafarroa Oinez 2017: diru laguntza eskaera.
- 6.-Etxalarko pastoralara: diru laguntza eskaera.
- 7.-Altsasuko Udalak igorritako idatzia
- 8.-AEK: eskola erabiltzeko eskaera.
- 9.-Bortzirietako Euskara Mankomunitatea: eskola erabiltzeko eskaera.
- 10.-ANIMSA: Batzar Nagusira joateko ordezkariaren izendapena.
- 11.-Herriko txoko politaren lehiaketa.
- 12.-Alkatearen ebazpenak.
- 13.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2017ko apirilaren 4an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-JUAN AGUINAGA LAZCANO JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Ikusirik Juan Aguinaga Lazcano jaunak aurkeztutako eskaera, Tolateko Borda alderdian dauden 20 haritz, 20 arkazi eta pinu insignisen probetxamendua egiteko (matarrasa), 3. poligonoko 10A eta 23B. lurzatietan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan Aguinaga Lazcano jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

3.-KATASTROKO ALDAKETARI BURUZKO AKORDIOA.

Ikusirik katastroa errealitatearekin bat etortzeko egindako aldaketa (249/SCO/17 zenbaki duena), hainbat lurzati mugak behar bezala jasotzeko planoetan (6. poligonoko 382, 383, 325, 333, 345 eta 18).

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Herrilurren atalak igorritako txostena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako katastroko aldaketa onartzea.

2) Akordio hau Lur-Ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzura igortzea.

4.- UDALEKO HIRIGINTZAKO PLANA EGITEKO HITZARMENAREN ONESPENA.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko eta Udal honen arteko lankidetzaren hitzarmena, Arantzako Udal Plan Orokorra egiteko.

Aztertu ondoren horren xedek eta baldintzak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako hitzarmena onartzea.

2) Akordio hau Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako Zerbitzura igortzea behar diren izapideak hasteko.

5.-NAFARROA OINEZ 2017: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Tantirumairu Ikastolak aurkeztutako diru laguntza eskaera, 2017ko urriaren 15ean izanen den Nafarroa Oinez antolatzeke.

Kontuan hartuz ospakizun berezia eta hurbila izanen dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Tantirumairu Ikastolari 200,00 euroko diru laguntza ematea aipatutako helburuarentzat.

2) Akordio hau Tantirumairu Ikastolari jakinaraztea.

6.-ETXALARKO PASTORALA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Puntu honi buruz Etxalarko Udalarari informazioa gehiago eskatzea erabaki da.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

7.-ALTSASUKO UDALAK IGORRITAKO IDATZIA.

Ikusirik Altsasuko Udaleko Alkateak igorritako idatzia, non eskatzen duen elkartasuna 2016ko urrian izandako gertaerari buruz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2016ko urrian izandako gertaeran parte hartu zuten gazteei eta terrorismo delituagatik inputatuak izan direnei Iruñan prozesatzea eskatzea eta ez Entzutegi Nazionalean.

2) Ikuturiko pertsona guztiekiko gure solidaritatea agertzea, hala nola familiekin, Altsasuko hiritarrokkin eta baita bere Udalarekin ere.

3) Atxikimendua adieraztea Altsasuko Udalari eta bat egitea Nafarroako Legebiltzarrak eta hainbat gizarte zibila luzatu duten deia.

4) Akordioa Altsasuko Udalari eta Nafarroako Gobernuari jakinaraztea.

8.-AEK: ESKOLA ERABILTZEKO ESKAERA.

AEK erakundeak udako ikastaroak antolatzeke Arantzako eskolako gelak (hiru edo lau gela eta mahaiak eta aulkiak) uztaila eta abuztuko hilabeteetan erabiltzeko aurkeztutako baimen eskaera ikusirik.

Ikusirik Arantzako Eskolako Kontseiluak emandako aldeko txostena baina eskolako giltzaren arduradun bat izateko baldintza pean.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) AEK erakundeari 2017ko uztaila eta abuztuko hilabeteetan Arantzako eskolako gelak erabiltzeko baimena ematea, aurkeztutako eskaeraren arabera.

2) Eskatzaileari 300,00 euroko fidantza eskatzea eta jakinaraztea eskola barnetegia hasi aurretik zegoen egoera berdinean geratu behar duela.

3) Jakinaraztea ere euren ardura izanen dela eskola zaintzea eta beraien kontura izanen direla sortutako kalteak.

4) AEK erakundeari jakinaraztea garbiketa orokorra egin beharko dutela barnetegi bakoitzean, 15 egunetik.

5) Arantzako eskolako arduraduna Iñigo Sarrias Zoco zinegotzia izendatzea.

9.-BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA: ESKOLA ERABILTZEKO ESKAERA.

Ikusirik Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aurkeztutako eskaera., Udaleku irekiak antolatzeke Arantzako eskola erabiltzeko (uztailaren 3tik 28 arte).

Ikusirik Arantzako Eskolako Kontseiluak emandako aldeko txostena baina eskolako giltzaren arduradun bat izateko baldintza pean.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Bortzirietako Euskara Mankomunitateari 2017ko uztailaren 3tik uztailaren 28ra Arantzako eskolako salto gela erabiltzeko baimena ematea, aurkeztutako eskaeraren arabera.

2) Ebazpen hau Bortzirietako Euskara Mankomunitateari jakinaraztea eta adieraztea Arantzako eskolako arduraduna Iñigo Sarrias Zoco zinegotzia izanen dela.

10.-ANIMSA: BATZAR NAGUSIRA JOATEKO ORDEZKARIAREN IZENDAPENA.

Ikusirik 2017ko maiatzaren 30ean ANIMSAko akziodunen Ohiko Batzar Nagusia izanen dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Ander Almandoz Indakoetxea jauna izendatzea Arantzako Udaleko ordezkaria ANIMSAk egingo duen Batzar Nagusirako.
- 2) Akordio hau ANIMSAri jakinaraztea.

11.-HERRIKO TXOKO POLITAREN LEHIAKETA.

2016. urtean Arantzako Udalak antolatu zuen Arantzako txokorik politena eta hobeki zainduaren lehenengo lehiaketa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) 2017. urtean bigarren txoko politen lehiaketa antolatzea eta horretarako oinarriak onartzea.
- 2) Deialdia herrian zabaltzea.

12.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2017ko 39. ebazpenetik 55. ebazpena arte.

13.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

14.-2017KO AURREKONTUAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA.

Nafarroako Gobernuak diru laguntza eman du Arantzako Udalari mendiko lanak egiteko, eta, bereziki, Basartea egindako proiektuari.

Kontuan hartuz sartutako partida ez dela nahiko lan guztiak burutzeko.

Kontuan hartuz 2016ko kontuan itxi ondoren izandako soberakina.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) 2017ko aurrekontuaren 1. aldaketa egiteko espedientea hasiera batean onestea.
- 2) Espedientea Idazkaritzan jartzea ikusgai hamabortz egun baliiodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

15.-5.POLIGONOKO 420. LUR ZATIAREN AKTUAZIO PLANA.

Arantzako Udalak, 2017ko otsailaren 17an egindako bileran, erabaki zuen Larretako 5. poligonoko 420. lur zatiaren aktuazio plan berezia hasiera batez onartzea.

Kontuan hartuz jendaurrean egondako epean ez dela alegaziorik izan.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 7. eta 74. artikuluetan ezarritakoa jarraikiz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako aktuzio plan berezia behin betikoz onartzea.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.



